


Euskal AEko industria-prezioak % 0,3 jaitsi dira 2024ko abuztuan, aurreko hilaren aldean

2023ko abuztuaren aldean, industria-prezioek % 5,5eko jaitsiera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,3 egin dute behera 2024ko abuztuan, aurreko hilaren aldean. Abuztuko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 5,5 jaitsi da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2024ko abuztuan *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 6,5) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 1,4) sektoreek izan dituztela jaitsiera handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako igoera handienak izan dituzten sektoreak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 8,5) eta *Industria kimikoa* (% 0,8) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, 2024ko uztailaren aldean, *Bitarteko ondasunen* prezioak % 1,0 jaitsi dira; *Kontsumo-ondasunenak* % 0,6 jaitsi dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 0,2 igo direlako eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 0,7 jaitsi direlako. *Energiaren* prezioak %0,1 jaitsi dira, eta *Ekipo-ondasunak* %0,3 igo.

Urte arteko datuetan, 2024ko abuztuan, 2023ko abuztuaren aldean, prezio-jaitsierarik handienak honako arlo hauek izan dituzte: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 24,0) eta *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 17,3). Aitzitik, urte artean igoerarik handiena izan duten prezioak honakoak izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 9,8), eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 5,8).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	124,1	-0,3	-5,5
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	135,5	0,2	9,8
Manufaktura-industria	128,7	-1,3	-2,7
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	132,9	-0,8	1,1
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	114,8	0,3	5,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	142,1	-0,2	-2,1
Kokeak eta petrolio finitzen	124,1	-6,5	-17,3
Industria kimikoa	146,4	0,8	0,8
Botiken fabrikazioa	130,0	0,2	-1,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	119,3	-1,0	-1,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	140,3	-1,4	-2,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	123,3	-0,8	1,5
Material eta ekipa elektrikoen fabrikazioa	120,1	0,0	3,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,8	0,0	0,8
Garraioko materialen fabrikazioa	116,9	0,3	3,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	122,6	0,3	0,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	95,7	8,5	-24,0
Ura	135,9	-0,5	3,0
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	130,8	-0,6	1,3
Kontsumoondasun iraunkorrak	122,1	0,2	3,6
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	132,3	-0,7	1,0
Ekipa-ondasunak	121,4	0,3	2,0
Bitarteko ondasunak	134,7	-1,0	-1,9
Energia	106,1	-0,1	-24,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Irailaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera kontsumo-ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (% 24,2) eta *Bitarteko ondasunetan* (% 1,9) emandako jaitsierarekin. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, % 1,3 igo dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* % 3,6 eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunenak* % 1,0 igo direlako. Azkenik, *Ekipamenduko ondasunen* prezioak % 2,0 igo dira urte artean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **92,11**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62